

### **3. Funtsezko elkarteak**

Hasteko gure proiektuak hornitzaile eta bazkide nagusi baten partaidetzarekin funtzionatuko du. Tolosako Udala. Bere laguntzarekin gure plataforma sortzeko datuak eskuratuko ditugu, Tolosako denda desberdinak, jatexateak, tabernak, zerbitzuak, supermerkatuak... Bakoitzaren ordutegia, saltzen dituzten produktuak jabeen eta langile nagusien datu pertsonalak beraiekin hitz egiteko.... Tolosako Udalaren barruan Tolosa&CO izeneko proiektuarekin bat egingo dugu, mugimendu honen helburua gure helburuekin bat egiten dutelako, eta horregatik erreza izango da gure arteko lana bideratzea. Gure hornitzaile Tolosako Udala izaten, honek emango dizkigu behar ditugun hasierako baliabideak gure zerbitzua geroz eta gehiago hobetzeko. Tolosan dauden enpresa handienak ere laguntzeko prest egon dira eta zorionez hauen laguntzak ere jasoko ditugu gure plataforma jende gehiagoren artean zabaltzeko. Enpresa hauek gure proiektuaren zabaltzaile nagusiak izango dira, beraiek sahiatuko direlako beraien bezeroek plataforma erabiltzea (Bridge, Tovar Ura&Beroa, Herrikide...)